

## Komunikatuz

**E**z nuen ezagutzen bera, ezta bere bloga ere. Egia esan, niri 95 urterekin biloba bloga opani tortozten bazait, ez naiz Maria Amelia Lopez bezain animosa izango. Ez dut berran soluziorik ikusi nahi izan adinekoen bakardadearen aurrean, baina lagun bat gogorazai dit irakurte-ak biloba batek amonaren ondoan honek esana biogean idatziz pasa dituela orduak, amonak inguruan zituen adineko lagunak hil ondoren sumatuzion tristura aintzearen, eta emakumeak dio, maitatua sentitzen zela inoiz ikusi gabe bere kontuak, bere kezka, irakurtzen zitzute-



**Jira**  
Uxue Apaolaza

nei esker. Nire laguna haserretu egiten da gaur egun («hainbeste aparatuekin lehen baino gutxiago komunikatzen gara») entzuten duen bakoitzean. Lehen hori egia da normalean definitu gabe geratzen dela, beharbada garai zaharrez baino norberaren haurtzaroz ez ote diren ari sumatzen dut nik; nire lagunak gure gurasaok, gure aiton-amonak gogoratzen ditu lehen horrekin, baserrien pareta atzean ezkutatuak sekretuak, gogortasunaren, fulamentuaren izenean isildutako markoikeriak.

Maria Amelia Lopez 97 urterekin depresioaz bakarrik hiltzeko aukera handiak zituen, konfidente berriz lagundurik hil da bilobari, eta gaur egunak ematen digun teknologiarik esker. Nire lagunak argumetu bat gehiago du.

## Modestia

**E**uskal kultura munduko izarra alda obra mamitsuak plazaratu dituztela *deus ere ez dutela sekula egin erraten* entzuten ditudanean harritzen naiz. Nonbait kolpatzen nau oinarriko modestia horrek, sinesten dudanean eta idazleak, musikariak edo kantariak bere burua juaizteko baliatzen dituzten hitzen artean mintzen eta dudu arazten nauen halako haustura bat dagoelako. Nago batzuezen ez ote den modestia hori faltsuegia.

Badakit gisa horretara heziak izan garela guztiak. Apaltasunean eta mende erdi luzeetan obratu du-



**Bira**  
Itxaro Borda

guna gutxiesteko jaidurarekin. Artean badira euskaraz nahiz erdaraz apurrerakin oportunistan antzera jostatzen direnak. Izanik ez dut emanen hemen, irakurle goaren intimitatea ez kolpatzeko. Gurean anitzetan ohorea merke da, eta ez du lotura mikorik zinezko eraginkortasunarekin. Ustezko sakrifizioarekin eta ambizioarekin alidz bai: egia da halaz bizitza ematen duenaren aldean olerki baten izkinatzea ezintasunean txertaturiko txotx bat baino ez dela.

Modestiak ekiteko atsegina ezabatzen duela dirudit. Plaza-ukatzaren baitzigu bezala. Eta beti John Lennonen abesti ezagun baten lehen eleak datozki gogora: *as soon as you're born they try to feel you small...*

### Zuzendaria:

Martxelo Otamendi

Zuzendariordeak:

Xabier Makazaga

Edizio arduraduna:

Lurdes Huzi

Argitaratzailea:

Euskal Editorea SM

Publizitatea: iragari SM

Lege gordailua:

SS-0662/03

Batzorde partekidea:

072184059

Egoitza nagusia:

Martin Ugalde kultur parkea.

Gudarian Etorbidua, Z/g.

20140 Andoain.

Telefonoa:

(0034) 943-30-40 30

Faxa: (0034) 943-30 09 43

Webgunea:

www.berria.info

Posta elektronikoa:

berria@berria.info

publi@iragari.net

Harpidetzeta saila:

(0034) 943-30 43 45

Date: 23/05/2009

Exemplaire: 1.839

Editeur: Euskal Editorea S.L.

Directeur de publication:

Martxelo Otamendi

Commission paritaire:

072184059

Déclaration Labourd:

Lisses 3, 64100-Baiona.

Tel.: (0033) 559256220.

Fax: (0033) 559254303.

E-mail: lapurdi@berria.info

ORDEZKARITZAK

Araba: Bizenta Mogel, 6.

Posta kodea: 01008

Gasteiz. Telefonoa:

945-15 04 52. Erredakziorik

faxa: 945-14 83 07

Posta elektronikoa:

araba@berria.info

Bizkaia: Uribearte kalea, 18,

3.C. Posta kodea: 48001

Bilbo. Telefonoa:

94-435 26 00. Erredakziorik

faxa: 94-423 49 75.

Posta elektronikoa:

bizkaia@berria.info

Lapurdi: Lisses, 3, Posta

kodea: 64100 Baiona.

Telefonoa: 559-25 62 20.

Faxa: 559-25 43 03.

Posta elektronikoa:

lapurdi@berria.info

Nafarroa: Iratzeke Monaste-

ria, 45, 13. Posta kodea:

31011 Iruia. Telefonoa:

948-36 66 22.

Publizitatea: 948-36 66 23

Posta elektronikoa:

nafrroa@berria.info

# Prieto eta Pastor

## Jose Luis Alvarez Erparantz, 'Txillardegai'

idazlea

**A**rtikulu honetan aurrrera egin baino lehenago, ohar hau egin behar dugu, Jose Azurmendik 1979an (orain dela 30 urte) Hordago sailean, *PSOE* eta *euskal abertzale-tasuna* liburur trinko eta bikaina argitaratu zuela. Eta egun hauetan gertatzen ari direnak hobeki ulertzen interesgarria dela, are beharrezkoa ere, arretaz berrirakurtzea.

Aspaldidanik bilatzen zuena lortu du *PSOE*ek oraingoan. Ajuria Enea Madrilekin eskuz esku jokatuko duen Jaurilaritza bat ipintzea, otzan eta esanekoa. Alegia, aurrekoan hor dago Gasteizen metropoliaren sukurtsala.

Operazioa bi aurpegitan gauzatu da: bata Francisco Lopez dagokio, bestea José Antonio Pastorrri.

Lopez, *lendacari* berria leunki mintzatu da: «denontzat» gobernatu nahi duela.

Pastor bozeramailea, aldiz, zakar eta moztorrik gabe; iharretxe astinduz, PNVa irainduz, eta euskal abertzaletasuna bera goitik eta behetik gaitzetsiz.

Eta honek atzera eraman gaitu, oso atzera. *PSOE* 1903az geroztik ari baita politikagintzan Hego Euskal Herrian, PNV bezalatsu.

Bion arteko talkek eta gorabeherak gure kondairaren parte garrantzitsu bat osatzen dute.

Guk ezagutzen dugun *PSOE* hau Indalecio Prieto Tuero asturiarrak antolatu eta gorpuztu zuen mende erdi baten barrena.

Prieto 1883an jaio zen Oviedon: Gazterik gertatu zen umezurtz aita-

ren aldetik, eta ama alargunarekin iritsi zen Bilbora 1891an.

Aski du irakurleak Arana-Goiri anaien jaiotegunak kontutan hartzea: 1862an Koldobika eta 1865ean Sabin, baita PNVren sorrera data ere, 1885. Prietok sortu berria zen Alderdi Jeltzalearekin topo egin zuela ulertzeko. Hain zuzen ere, elkarren lehia mamitu dira *PSOE* eta PNV.

Sabin Aranak 1898an irabazi zuen probintzi diputatugoa Bilbon; eta 1898an lau lekutan lortu zituen zinegotziak: Arteagan, Bermeon, Mundakan eta Bilbon bertan. Prietok 16 urte zituen orduan.

Abertzaletasuna azkarki gora zihola lepreparatu zuen Prietok, eta kezkatu egin zen oso. Eta politikaren munduan murgiltzea erabaki zuen. Eta 1911an, 28 urte zituelarik, probintzi diputatu gradua lortu zuen Bilbon.

*El Liberal* egunkarian sartu zen, eta zuzendari maila lortu zuen, baita geroearen kazetaren jabetza ere.

Baina jauzi handia 1918. urtean egin zuen, baita ere sozialista ez zen Balparda jukutiaz elkartuz.

Eta ezin zakarkiago aurkeztu zuen bere programa: «Yo os digo aquí, ante el pueblo de Bilbao, que soy enemigo acérrimo, declarado, del nacionalismo vasco». Etorकिनak gogorki aldarrikatu zuen bere asmoa: abertzaletasunari gerra osoa. Arbuo orokor horren sustraza azaltzen egia desitxuratu zuen: «porque el nacionalismo vasco es rural y reaccionario».

Meaberrin Juventudes Socialistas antolatzean, pozoi anti-abertzalea txertatu zion. Baina orduarok aitortua zuen Prietok, nahiz ez arras oneto: «Yo siento a Bilbao, pero no siento a Lequeitio». Alegia, espainieraz mintzo den hiria konprenitzen dut, eta maite. Baina euskaraz bizi den lurraldea arrotz zait, eta mesfidantzaz begiratzen dut

Geroztik behin eta berriz aldarrikatu dute sozial-inperialistek hement dugu arazo bakarra eskun/ezker dela; eta dikotomia horretan bi nazionalismo, espainiarra eta euskalduna ezkutatu.

«Soy el único representante en Cortes no nacionalista de la provincia de Vizcaya; el único representante de las provincias vascongadas que no es hijo del país». Txalo zaparrada galantak biltzen zituela esan beharrik ez dago. Lopez *lendacariak* Madrilen jaso dituen mailakoak.

Goazen harira. Facundo Perezagua sindikalistaren bazterketaren ondoren, zer zen *PSOE*?

Ezkertiar multzoa Largo Caballero inguruan, maiz agertu zen Prietoren aurka. Beste bat, eskuin aldean, Besteiroren inguruan. Eta beste bat «pragmatikoa», Prietoren inguruan.

Hots, hona hemen Azurmendik 1979an idatzi zuena: «*PSOE* Euskadin, orain nahi luken alderdi liberal, progresista, sozial hura izan or-

Gakoa hauxe da Pastorrren uestez omen: «La pretensión (de Ibarretxe) de imponer a toda costa su visión particular de lo vasco». Horra arazoa.

Eta egon pixka batean: «Lo cierto es que nunca supimos qué era lo que tenemos (los vascos) que no tuviesen los americanos, los alemanes, o el resto de los españoles». Bapo!

dez, alderdi espainiolista fanatiko, imperialista, anti-euskaldun eta anti-abertzale amorratua izan baitzen».

Euskal herri euskalduna mesprextatuz, Oviedotik ekarrirako espainiar-tasuna aldarrikatzen zuen lotsarik gabe.

Ohartxo bat Prietoren ezker-tasunaz. 1938an ezker muturreko Negrin Doktoreak bota zuen Madrileko Gobernutik Prietoren anti-komunismo tematiagatik.

Baina bego horretan Prietorena, eta betorkigui José Antonio Pastor. Hona hitzaldiak («Gasteiz, maiatzaren 5ean») aipamen berezia merezu du. Urte mordoan pasata ere, *PSOE* prietismoan dagoela ulertzeko.

«Los ciudadanos vascos no nos han elegido para que les digamos cuáles deben ser sus sentimientos, en qué idioma deben hablar, etc.» Hala ere Pastorrri ahaztu egiten bide zait inposatutako legetasunak dioena: «Todo español tiene el deber de conocer la lengua nacional, y el derecho a usarla». Ala ez? Baina non adierazten da euskal herritar orok jakin behar duela euskaraz, eta erabiltzeko eskubidea dugunik?

Gakoa hauxe da Pastorrren uestez omen: «La pretensión (de Ibarretxe) de imponer a toda costa su visión particular de lo vasco». Horra arazoa.

Eta egon pixka batean: «Lo cierto es que nunca supimos qué era lo que tenemos (los vascos) que no tuviesen los americanos, los alemanes, o el resto de los españoles». Bapo!

«En el país vasco hay diversidad de sentimientos de pertenencia». Baztuz, ordea, lekeitiarkerien putzura erori dira, eta hor zegok kokka bakarra...

Izan ere, zer da PP-*PSOE* ituna *frente nacional* huts-hutsa baizik? «Hemos sufrido un intento de crear un auténtico frente nacional». Abertzalea...

«Es imposible y suicida tratar de imponer el uso de una lengua». Baina Pastorrrek inposatzen du espainiera Legebiltzarrean. Esperantoz mintzo ote da Pastor?

Zertarako jarraitu? Aski da Prieto aitapontekoa berrirakurtzea.